



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA

FAKULTATEAREN DIZIPLINA ARAUTEGIA

2022ko iraila

AURKIBIDEA

ATARIKO KAPITULUA: DISZIPLINA AHALA

● 1. artikulua.- Arautegiaren helburua.....	1
● 2. artikulua .- Aplikazio esparrua.....	1
● 3. artikulua.- Printzipio erregulatzaileak.....	1
● 4. artikulua. - Diziplina Batzordea.....	2
● 5. artikulua. - Arau-hausteen eta zigorren preskripzioa.....	2
● 6. artikulua. Zigorren erregistroa eta baliogabetzea.....	2

I KAPITULUA : DIZIPLINA ARAU-HAUSTEAK

● 7. artikulua.- Diziplina arau-hausteak edo faltak.....	3
● 8. artikulua.- Oso falta larriak.....	3
● 9. artikulua.- Falta larriak.....	5
● 10. artikulua.- Falta arinak.....	7
● 11. artikulua.- Unibertsitate komunitatearen kideak.....	8
● 12. artikulua.- Unibertsitate ondasunekin parekatutako ondasunak.....	8

II KAPITULUA: DIZIPLINA ZIGORRAK

● 13. artikulua.- Oso falta larriei dagozkien zigorrak.....	8
● 14. artikulua.- Falta larriei dagozkien zigorrak.....	8
● 15. artikulua.- Falta arinei dagozkien zigorrak.....	9
● 16. artikulua.- Zigor osagarriak.....	9
● 17. artikulua.- Izaera hezitzaileko eta berreskuratzailako neurriak.....	9

III KAPITULUA: OHIKO DIZIPLINA PROZEDURA

● 18. artikulua.- Hasiera modua.....	10
● 19. artikulua.- Behin behineko neurriak.....	11
● 20. artikulua.- Prozeduraren garapena eta ebazpena.....	11
● 21. artikulua.- Epeen zenbaketa.....	12
● 22. artikulua.- Epeen luzapena	12

IV KAPITULUA: PROZEDURA LABURTUA

● 23. artikulua.- Prozedura laburtua.....	13
---	----

XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	13
--------------------------	----

ATARIKO KAPITULUA: DIZIPLINA AHALA

1. artikulua.- Arautegiaren helburua

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen diziiplina arautegi honen helburua, Fakultateko ikasleei aplikatuko zaien diziiplina erregimenaren erregulazioa da.

2. artikulua.- Aplikazio esparrua

1. Arautegi hau, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko ikasle guztientzat eginda dago.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko ikasleak hauek dira: titulazio ofiziala edo propioa lortzeko ikasketetan matrikulatuta dauden pertsonak, eta baita Fakultateko edozein zentrotan edo laborategitan, beste prestakuntza ikasketetan matrikulatuta daudenak ere. Zentro hauek, berezkoak edo adskribatuak izan daitezke. Bertako ikasleak dira ere, mugikortasun programen barne aurkitzen direnak.

2. Arautegi honetan ezarritako diziiplina erregimena, Fakultateko toki eta dependentzietan ikasleek edukitako jarrerari aplikatuko zaie, eta aplikatuko da ere, adskribatutako eta elkartutako zentro edo laborategietan. (Ikasle elkarteak eta abar). Diziiplina erregimena, leku hauetatik kanpo ere aplikatu daiteke, ikasleen jarrerak zerikusia daukatenean bere Fakultateko ikasle izaerarekin.

3. artikulua.- Printzipio erregulatzailerak

1. Bakarrik zigortu ahal izango dira, arautegi honetan zigor bezala agertzen diren jarrerak, eta zigorra, hauentzako aurreikusita dagoena izango da.

2. Arau-hauste bezala kalifikatu daitezkeen jarrerak, nahitaez edo arduragabekeria larri batengatik egindakoak dira.

3. Zigorrak ezartzerakoan, organo eskudunak modu motibatuan atenditu beharko du, gertaeraren larritasunaren egokitasuna, ezarritako zigorrarekin. Zigorra graduatzeko, bereziki kontuan hartuko dira hurrengo iritziak:

- Nahitasuna egotea
- Errepikapena
- Egindako kalteen natura eta entitatea
- Unibertsitate konbibentziaren nahasmendu gradua
- Bat-bateko damutasuna.
- Ikaslearen zirkunstantzia pertsonalak, familiarrak edo sozialak. Kasu honetan, beharrezko txostenak eskatu ahal izango dira.

4. Arau-haustek, zigor bat baino gehiago eduki dazakenean, egokiena inpostuko da, ebazpenean motibatuta.
5. Araudi hau aplikatzean inposatuko diren zigorrek, ez dute eraginik izango hauek ekar ditzaketen erantzukizun zibil, administratibo eta penalean.

4. artikulua.-Diziplina Batzordea

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen esparruan, Diziplina Batzorde iraunkorra osatzen da eta honen printzipioak, legalitatea, justizia, proportzionalitatea eta ekitatea izango dira. Batzordean, hurrengo kideek hartuko dute parte:

Lehendakaritza: Tituluaren Zuzendari akademikoa edo honen ordezkoa.

Idazkaritza: Fakultateko Idazkari Akademikoa edo honen ordezkoa.

Bokala: Pertsona hau izendatzeko, ados jarriko dira Tituluaren Zuzendari Akademikoa eta Fakultateko Idazkari Akademikoa.

5. artikulua. Arau-hausteen eta zigorren preskripzioa

1. Zigorrik gabe geratutako arau-haustek preskribatu egingo dira: oso larriak bi urteetara, larriak urte batera eta arinak, 6 hilabeteetara. Kontaketa, gertaera izan denetik hasiko da.

Arau-hausteen preskripzio epearen zenbaketa, hauek burututakoan hasiko da. Kontaketa, eten egingo da prozeduraren hasieratik edo bere aurreko edozein jokaeragatik, eta prozedura geldituta egongo balitz hilabete bat baino gehiagotan, interesdunari egotz dakioken arrazoirik egon gabe, epearen zenbaketa berriz hasiko da.

2. Bete ez diren arau-haustek, preskribatu egingo dira: oso falta larriengatik jarritakoak, bi urteetara, falta larriengatik, urtebetera eta falta arinengatik ezarritakoak, sei hilabeteetara. Kontaketa, zigor ebazpena irmo denetik hasiko da.

6. artikulua. Zigorren erregistroa eta baliogabetzea

1. Ezarritako zigorrak, Idazkaritza Akademikoan, dagokion erregistroan inskribatuko dira, baina bakarrik falta larriengatik edo oso larriengatik ezarritako zigorrak agertuko dira zigortuaren espediente akademikoan.

2. Zigorren inskripzioa eta horrela badagokio, honen agerpena espediente akademikoan, ofizioz baliogabetuko da, hamabi hilabete pasatutakoan. Zenbaketa, zigorra bete denetik hasiko da, zigortuak ez badu berriz, beste arau-hausterik egin. Azken kasu honetan, arau-hauste berria baliogabetzeko, honekin lotutako baldintza berdinak bete behar dira.

Salbuespen moduan, interesatuak eskatzen badu eta Dekanoaren ongi iritzia badauka, Fakultateko Idazkari Akademikoak, proportzionalitate arrazoiengatik, inskripzioa baliogabetu ahalko du, eta horrela badagokio, espediente akademikoan jasota dagoena kendu ahal izango du ere, adierazitako baldintzak bete gabe, ikasleak bere ikasketak Fakultatean amaitu ondoren.

1.KAPITULUA: DIZIPLINA ARAU-HAUSTEAK

7.artikulua.- Diziiplina arau-haustek edo faltak

1. Arau-haustek dira, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko ikasleek burututako ekintzak edo omisioak, Arautegi honetan horrela agertzen badira tipifikatuta.
2. Arau-haustek horrela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.

8.artikulua.- Oso falta larriak

Oso falta larriak dira, Fakultatean egon behar den ordena asko aztoratzen dutenak, eta bereziki, hauek:

- a) Egitezko tratu txarrak, errespetu eta kontsiderazio oso falta larriak, nahita egindako kalteak, hauen kontra direnean: autoritate akademikoak, bere ordezkioak, irakasleak, euren eginkizun legitimoan dauden unibertsitate zerbitzuen langileak edo unibertsitate komunitatearen edozein kide.
- b) Egitezko tratu txarrak, edo adierazpen zein ekintzak, objetiboki, honako hauen kontra direnean: unibertsitate komunitatearen edozein kide (irakaslea edo ez), azpikontratutako enpresen pertsonala, ikasleak, bere prestakuntza garatzen duen erakunde publiko edo pribatuaren pertsonala. Egindako ofentsa, jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik edo beste baldintza edo zirkunstantzia pertsonala edo sozialagatik izan daiteke, eta ofentsa hauek, oso larriak kontsideratuko dira, pertsonari zuzendutako ofentsek, eragin pertsonala, soziala eta nabaria daukatenean.
- c) Egitezko tratu txarrak, unibertsitate komunitatearen kide berriei. Hemen, heldu berriei egindako irainak eta molestiak sartzen dira; hau da, "nobatadak". Faltza hauek, larriak izango dira, eragin pertsonala, soziala edo nabaria daukatenean.
- d) Ikasle baten edo batzuen jazarpena, tratu txar fisikoaren, moralaren edo psikologikoaren bidez, baliabide informatikoak edo telefono mugikorra erabiliz edo ez erabiliz, honako hauei zuzenduta: beste ikasle bati, unibertsitate komunitatearen beste kide batzuei edo azpikontratutako enpresen pertsonalari, edo ikasleak bere prestakuntza garatzen duen erakunde publiko edo pribatuaren pertsonalari, edo bere prestakuntza osatzeko kolaboratzen duen erakundearen pertsonalari, bai unibertsitate barnean zein kanpoan. Jazarpena izango da ere, modu errepikakorrean eta denbora luzean izandako biolentzia psikologikoko jarrerak. Jazarpen hau, pertsona batek edo batzuek, beste pertsona baten edo batzuen kontra egiten da, botere kokapen batetik. (Ez da jerarkikoa izan behar nahitaez). Helburua, biktimaren bizitza akademikoa aztoratuko duen kontrako ingurunea edo ingurune iraingarria sortzea da.

- e) Sexu jazarpena: Hemen, pertsona baten dignitatean, eragin negatiboa duen sexu izaerako edozein portaera, ahozkoa zein fisikoa sartzen da, batez ere, ingurune beldurgarria, iraingarria edo erasotzailea sortzen denean.
- f) Pertsona baten sexuagatik izandako edozein portaerak ekartzen duen jazarpena, honek eragin negatiboa duenean eta ingurune beldurgarria, iraingarria edo erasotzailea sortzen duenean.
- g) Jarrera desagokiak dakarren jazarpen diskriminatzailea, arraza edo etniagatik, erlijioagatik, ideiegatik, ezgaitasunagatik, adinagatik edo pertsona baten sexu aukeragatik; honek, ondorio kaltegarriak dituelako pertsonaren dignitatean eta ingurune beldurgarria, iraingarria eta erasotzailea sortzen duelako.
- h) Autoritate akademikoek edo ordezkoez, irakasleek edo euren eginkizunetan dauden unibertsitate zerbitzuen langileek emandako agindu eta xedapenetan, oso desobedientzia larria dagoenean.

Desobedientziaren larritasuna neurtzeko, bereziki, kontuan hartuko dira, aginduaren edo xedapenaren garrantzia eta zein organotatik datorren, arau-hauslearen setakeria eta gertaeraren eragin edo nabarmentasun posiblea.
- i) Unibertsitateko baliabide informatikoen erabilera desagokia, hau da, unibertsitate zerbitzuen jardura edo kanpotik datozen aktibitatea, nahitaez oztopatzen denean.
- j) Unibertsitateko kanpoko baliabide informatikoen erabilera desagokia, honen helburua, unibertsitate zerbitzuen jardura, nahitaez oztopatzea denean.
- k) Unibertsitate komunitatearen kideen osasunerako edo integritate fisikorako, arriskutsua izan daitekeen objektuen erabilera edo hauek edukitzea.
- l) Unibertsitatearen komunitatearen kideen osasunerako edo integritate fisikorako, arriskutsuak izan daitezkeen jokaerak, portaerak eta jarrerak.
- m) Substantzia estupefazianteen eta psikotropikoen banaketa, unibertsitate esparruan.
- n) Pertsonalitatearen ordezkia, bizitza akademikoaren ekintzetan edo bertatik onurak ateratzea.
- o) Dokumentu akademiko edo administratiboen faltsifikazioa, lapurreta edo suntsiketa eta dokumentu faltsuen erabilera Unibertsitatearen organoen aurrean.
- p) Ezagutzaren proben, azterketen edo kontrolen edukia lortu, iruzurrezko bideak erabiliz edo konfiantza abusuagatik. Edo ebaluazioa egin ondoren, formulak, galdetegiak, notak edo kalifikazioak lapurtu, aldatu edo suntsitu.
- q) Komunikazio pribatuaren eta posta elektronikoen interzeptazioa edo hauen banaketa, igorleak berau debekatu egin duenean.

- r) Fakultateko eta zentro kolaboratzaileen materiala edo dirua (propinak, aldaketak, eta abar), ebatsi edo lapurtu, edo ikaskideen zein irakasleen materiala ohostu, hauen balioa 100 € tik gorakoa denean.
- s) Inputazioa, prozesu penal batean, delitu engainagarri bategatik, honek, unibertsitateko irudia eta ospea, kaltetu egiten duenean eta prozesu penaleko zigorraren epaia irmo denean.
- t) Indarkeriazko oposaketa, ekitaldi akademikoak osatzeko edo unibertsitate arauak betetzeko.
- u) Sarrera ez baimendua Unibertsitateko sistema informatikoetan; hauen funtzionamendua oztopatzea; artxibo elektronikoan aldaketa edo iruzurrezko erabilera.
- v) Ikasleak izandako edozein jokabidea, jarrera edo portaera, bai unibertsitate barruan zein kanpoan, bere larritasunagatik, Unibertsitatearen edo bere kideren baten irudi ona eta prestigioa, kaltetu egiten duenean.
- w) Kode Penalean delitu bezala jasotako portaerak, delitu arinak izan ezik.
- x) Ezarritako zigorrak ez betetzea.
- y) Bi falta larri egitea ikasturte akademiko baten barruan edo hiru falta egitea, bi ikasturte akademikoetan zehar.

9. artikulua.- Falta larriak

Falta larriak dira, Fakultatean egon behar den ordena, asko oztopatzen dutenak eta bereziki hauek lirateke:

- a) Errespetu eta kontsiderazio falta larriak, unibertsitate komunitatearen edozein kideren kontra egiten direnean.
- b) Ekitezko tratu txarrak, unibertsitateko komunitatearen kideei. Hemen heldu berriei egindako irainak eta sortutako molestiak sartzen dira. "Nobatadak" deitzen zaie.
- c) Jarrera desagokiak esparru akademikoan. Portaera hauek ezin dira jazarpen bezala kontsideratu, ez direlako errepikakorrak eta ez direlako mantentzen denboran, edo ez dagoelako botere asimetria edo eragina ahalmenik, baina gaitzesgarriak dira berez, eta errepikatzen badira, jazarpenak izatera heldu daitezke.
- d) Fakultateko eta zentro kolaboratzaileen materiala edo dirua (propinak, aldaketak, eta abar), ebatsi edo lapurtu, edo ikaskideen zein irakasleen materiala ohostu, hauen balioa 100 € tik beherakoa denean.
- e) Unibertsitateko dependentzien edo unibertsitateko beste kide batzuen objektuen eta pertenezkien hondaketa larria, nahita eginda dagoenean.
- f) Sarrera ez baimendua, Unibertsitateko instalazioetan.

- g) Beste pertsona baten txartelaren edo karnetaren erabilera, Unibertsitateko prestazioak edo zerbitzuak erabili ahal izateko.
- h) Ikaslearen identitate txartelaren edo karnetaren erabilera desegokia, edo honen galeraren edo lapurretaren komunikazio falta errepikakorra.
- i) Ekitaldi akademikoak, jarduera akademikoa eta unibertsitate zerbitzuak, modu larrian oztopatzen dituzten jarrerak.
- j) Desobedientzia larria, autoritate akademikoen edo hauen ordezkoen, irakasleen edo bere eginkizun legitimoan dauden zerbitzu langileen agindu edo xedapenei.
 Desobedientziaren larritasuna neurtzeko, kontuan hartuko dira bereziki, aginduen eta xedapenen garrantzia eta zein organotatik datorren, arau-hauslearen setakeria, eta gertaeraren eragin edo nabarmentasun posiblea.
- k) Errendimendu akademikoaren frogaketa sistema iruzurtzen duten jarrerak. Besteak beste, hauek dira:
 - 1. Beste pertsona baten lana ekoiztu guztiz edo zati bat, eta ebaluazio proba batean aurkeztu, berea izango balitz bezala, dagokion iturria era egokian eta osoan aipatu gabe. (plagioa).
 - 2. Beste pertsona batek, dohainik edo ordainduta, enkarguz egindako lana aurkeztu, norberarena izango balitz bezala ebaluatua izateko. (kolusioa).
 - 3. Aurretik, kurtso berean edo beste batean ebaluatua izan den lan baten aurkezpena, bai titulazio berekoa zein beste batekoa. (auto plagioa).
- l) Jokatu, errendimendu akademikoaren frogaketa sistemak iruzurtzeko, bai onuradun moduan, bai kolaboratzaile gisa.
- m) Mugikorraren edo edozein gailu elektronikoren erabilera, ebaluazio probak egiten diren bitartean; jarduera horretarako, espreski, aurreikusita egon ezean.
- n) Unibertsitateko baliabide informatikoen erabilera desegoki larria; hau da, erabilera honek, Unibertsitateko zerbitzuen jarduera edo Unibertsitatetik kanpoko aktibitatea oztopatzen duenean.
- o) Unibertsitatetik kanpoko baliabide informatikoen erabilera desegoki larria, erabilera honek, unibertsitate zerbitzuen jarduera oztopatzen duenean.
- p) Informatika eta liburutegi gelak eta gainontzeko unibertsitate zerbitzuak erabiltzeko dauden arauak, modu errepikakorrean ez betetzea.
- q) Unibertsitatearen, bere edozein zentro propioaren eta atxikitakoren logotipoa, izena edo zeinu bereizgarriak, baimenik gabe erabiltzea. Baimenik gabe, ezingo da ere, inolako irudirik grabatu.
- r) Mozkortuta edo drogatuta egon, Fakultateko esparruan.

- s) Jokaera iraingarriak izan, Unibertsitate erakundearekin edo bere kideekin, portaera hauek, oso larritzat hartzen ez direnean.
- t) Unibertsitateko komunitatearen kideren baten edo Unibertsitate beraren irudia kaltetzen dituen materiala edo adierazpenak zabaltu, Unibertsitatearen sare elektronikoaren bitartez edo beste edozein bideren bitartez.
- u) Erregistro pertsonala edo beste kide batena faltsutu, edozein bide erabiliz.
- v) Oso falta larriak diren portaeretan edo erkintzetan parte hartu, hauek estali edo kolaboratu.
- w) Delitu arineko jarduerak kode penalaren arabera.
- x) Ikasturte akademiko baten barruan, bi falta arin egiten denean edo hiru falta, bi kurtso akademikoetan zehar.

10.artikulua.- Falta arinak

Falta arinak dira, aurreko apartatuetan aurreikusitakoarekin arabera, falta larriak edo ez larriak ez direnak. Hauek, eragin txikia izango dute unibertsitateko konbibentzian. Zehazki:

- a) Unibertsitateko patrimonioaren ondasunetan edo Unibertsitateko komunitatearen kideen pertenenztietan, hondamendi larriarik sortzen ez dituzten ekintzak.
Larritasuna zehazteko, egindako kaltea eta honen ondorioak hartuko dira kontuan.
- b) Unibertsitatearen edo bere zerbitzuren baten funtzionamendu normala, modu arinean oztopatzen dituzten ekintzak (Informatika gelak, eta abar).
- c) Unibertsitate txartela galdu egin dela edo lapurtua izan dela ez esatea.
- d) Indarrean dagoen osasun legeria ez betetzea, eta zehazki, tabakoaren kontrako arauak.
- e) Aurreko paragrafoetan, ez larriak bezala deskribatutako ekintzak, jarrerak edo portaerak, hauek, ikaslea prestakuntza akademikoa jasotzen duen erakunde publiko edo pribatuetan gertatzen direnean, edo ikaslea, bere prestakuntza osatzeko, parte hartzen duen erakundeetan gertatzen denean.
- f) Ikaslearen ekintzak, jarrerak edo portaerak, bai Unibertsitate barruan zein kanpoan, modu arinean zeharka edo partzialki, Unibertsitatearen edo bere kideren baten irudi ona eta ber prestigioa, kaltetzen duenean.

11. artikulua- Unibertsitate komunitatearen kideak

Aurreko artikuluen efektuetara, Unibertsitatearen kideak hauek kontsideratzen dira: batetik, irakasleak, ikertzaileak, ikasleak eta zerbitzu pertsonala, eta bestetik, ikaslea, edozein jarduera egiten ari den zentroen bisitariak eta pertsonak edo baita ikaslearen prestakuntza osatzeko, honekin kolaboratzen dutenak.

12. artikulua- Unibertsitateko ondasunekin parekatutako ondasunak.

Aurreko artikuluen efektuetara, parekatu egingo dira Unibertsitateko dependentziak, instalazioak, objektuak eta bide materialak, edozein zentro propio edo atxikituenak (ikasle elkarteak eta abar), Unibertsitate ikasle bezala, ikaslea, edozein jarduera egiten ari den zentrokoekin.

II. KAPITULUA: DIZIPLINA ZIGORRAK

13.artikulua.- Oso falta larrei dagozkien zigorrak

Oso falta larriak zigortuak ahal izango dira, gertaeraren larritasuna eta sortutako mina ponderatuz. Zigorrak hauek izan daitezke:

- a) Fakultatetik aldi baterako kanporatzea.
- b) Fakultatetik behin betiko kanporatzea.

Unibertsitate patrimonioaren ondasunetan kalteak egin izan balira, edo lapurreta zein ebasketa egon balitz, gainera, bere balioa edo konponketarena ordaindu beharko da eta baita lapurtutakoaren balioa ere.

14. artikulua.- Falta larriei dagozkien zigorrak

Falta larriak zigortuak ahal izango dira, gertaeraren larritasuna eta sortutako mina ponderatuz. Zigorrak hauek izan daitezke:

- a) Kanpo praktikak burutzeko eskubidea kendu.
- b) Beste unibertsitateekin hartu-eman programetan parte hartzea debekatu.
- c) Lehenetsuna galdu, ibilbide edo espezializazioak aukeratzeko.
- d) Irakasgai batean, batzuetan edo guztietan, ebaluatua izateko eskubidea galdu, kursoaren deialdi batean edo guztietan.
- e) Ebaluazio proban edo dagokion irakasgaiaren emandako kalifikazio akademikoaren baliogabetzea.

Klasera joateko eta ebaluatua izateko eskubideak galtzea, ordaindutako aportazio kuotak eta matrikula galtzea ere, ekarriko du.

Unibertsitateko patrimonioari, kalteak egin izanez gero, gainera, bere balioa edo konponketarena ordaindu beharko da.

Falta larriei dagozkien zigorrak, jarrera hezitzaileko edo berreskuratzaileko neurriak izan daitezke, 17. artikuluan aurreikusita dagoen bezala. .

15. artikulua- Falta arinei dagozkien zigorrak

Falta arinak zigortuak ahal izango dira, gertaeren naturaren arabera.

- a) Ohartarazpen idatziarekin.
- c) Aldi baterako debekua, liburutegiko mailegu zerbitzuak, baliabide informatikoak edo beste zerbitzu batzuk erabiltzeko.
- b) Aldi baterako debekua liburutegira sartzeko, informatika geletara sartzeko eta ikasleei ematen zaizkien beste zerbitzu batzuen aldi baterako ukapena.

Unibertsitateko patrimonioari, kalteak egin izanez gero, gainera, bere balioa edo konponketarena ordaindu beharko da.

Falta larriei dagozkien zigorrak, jarrera hezitzaileko edo berreskuratzaileko neurriak izan daitezke, 17. artikuluan aurreikusita dagoen bezala. .

16. artikulua. Zigor osagarriak

Dagokion zigorra ezartzeaz gain, zigor gehigarri moduan, ezar daiteke ere, beken erabateko galera edo partziala eta baita Unibertsitateak emandako beste eskola onurak ere.

17. artikulua.- Izaera hezitzaile eta berreskuratzaileko neurriak

1.- Diziiplina Batzordeak, falta larriei edo arinei dagokien zigorra aplikatu beharrean, izaera hezitzaileko edo berreskuratzaileko neurriak aplikatu ditzake.

Neurri hauek, ikaslearen erantzukizunaren amaiera ekarriko dute.

2.- Izaera hezitzaileko eta berreskuratzaileko neurriak honako hauek izan daitezke: Boluntariotza ekintzak, kirolezkoak, ezgaitasuna daukaten ikasleei asistentzia, garapen jasangarriko laguntza ekintzak, ekitaldiak edo beste antzerako batzuk. Hauek, Fakultatearen edo Unibertsitatearen Komunitatearen onurako izango dira.

III KAPITULUA: OHIKO DIZIPLINA PROZEDURA

18. artikulua. Hasiera modua.

Diziplina prozedimenduak ofizioz hasiko dira, Fakultateko Diziplina Batzordearen adostasunarekin. Horretarako, lehenengo, Unibertsitate komunitatearen edozein kidek, Batzordeko Lehendakartzari helarazi egin beharko dio salaketa, eskaera edo txosten arrazoituen bat. Hala ere, Batzordeak, ofizioz jokatu ahal izango du, Unibertsitate ordenaren interesak, horrela gomendatzen duenean.

Eskaera arrazoituak eta salaketak, ez dute organo eskuduna lotesten, baina honek, hala badagokio, eskaera egin duen organoari edo salatzaileari, prozedura ez hastearen arrazoiak jakinarazi beharko dizkio.

Diziplina Batzordeak, aurretik adierazitako salaketari erantzuteko, beharrezkoak ikusten dituen aurreko jarduketak burutu ahalko ditu, horrela, aldeztu aurretik erabakiko du, prozesura zigortzailearen hasiera justifikatzen dituen zirkunstantziak dauden edo ez.

Aurreko jarduketa horien markoan, Unibertsitate komunitatea babesteko eta ziurtatzeko, kautelazako neurriak hartu ahal izango dira, esparru akademikotik edo Arautegi honetatik kanpo egon daitezkeen ikasleen portaeren aurrean, portaera hauek, instantzia judizial baten ikerketa objektua direnean edo epai baten ondorioz, zigortuak izan direnean.

Lehenengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, Diziplina Batzordearen Lehendakariak, prozeduraren hasiera, beste edozein organo batean edo honetarako esleitutako pertsona batengan delegatu ahalko du.

Diziplina Batzordeak formalizatuko du prozesura zigortzailearen hasiera akordioa, eta gutxienez, honako hauek agertu beharko dira:

- a) Pertsona erantzulearen edo erantzuleen identifikazioa.
- b) Prozedurarekin hasteko arrazoiak, bere kalifikazio posiblea eta dagozkion zigorrak; instrukziotik irten daitekeena kaltetu gabe.
- c) Instruktoarearen identifikazioa, eta bere kasuan, prozeduraren idazkaria.
- d) Prozeduraren ebazpenerako Organo eskuduna, eta kompetentzia hori esleitzen dion araua; ustezko arduradunak, bere erantzukizuna borondatez aitortzeko aukera izan dezakeela adieraziz, 20. Artikuluan aurreikusitako efektuekin.
- e) Organo eskudunak adostutako behin behineko neurriak, prozedura zigortzailearekin hasteko; 19. Artikuluaren arabera hartu daitezkeen neurriak kaltetu gabe.
- f) Prozeduran alegazioak formulatzeko dagoen eskubidearen eta honetarako dauden epeen adierazpena.

19. artikulua. Behin behineko neurriak

Erabakiak har ditzakeen organo eskudunak, akordio motibatuaren bidez, edozein momentutan hartu ahal izango ditu beharrekoak izan daitezkeen behin behineko neurriak, ebazpenaren eraginkortasuna, prozedura egokia, eta interes orokorren exigentziak ziurtatzeko eta arau-haustearen efektuak ebitatzeko.

Behin behineko neurriak hauek izan daitezke: Aldi baterako Fakultatean sartzeko debekua edo murrizketa, irakasgai baten edo batzuen klasetara joan ezin izatea, liburutegira edo informatika gelara sartzeko debekua, eta gauza bera, ikasleei eskaintzen zaizkien beste zerbitzu batzuekin.

Dena dela, behin behineko neurriak, egokitu egon beharko dira, suposizio bakoitzerako lotu nahi denarekin: helburuen intentsitatea, proportzionalitatea eta beharrak.

20. artikulua. Prozeduraren garapena eta ebazpena.

1.- Diziplina Batzordeak, diziplina prozeduraren hasieraren akordioa onartu ondoren, espedientearen instruktoreari eta idazkariari jakinaraziko zaie.

2.- Instruktoareak, beharrezkoak diren probak eta deklarazioak jasoko ditu gertaerak argitzeko eta Diziplina Batzordeari, zigor ebazpen proposamen bat luzatuko dio edo arau-hausterik zein erantzukizunik ez dela egon adieraziko dio.

3.- Ebazpen zigortzailearen proposamenaren kasuan, hauek azalduko dira: espedienteari egotzitako gertaerak, arau-hauste posibleak, zigorrak, erabakiak hartzeko organo eskuduna eta aplikazio arautegia.

4.- Zigor ebazpen proposamena, Diziplina Batzordeak onartu ondoren, komunikatu egingo zaio espedienteari. Honek, bost eguneko epea edukiko du jakinarazpena jaso zuen hurrengo egunetik, nahi duena idatziz alegatzeko, egokiak iruditzen zaizkion probak aurkeztuz edo proposatuz, bere eskubideak eta interesak defendatzeko komenigarria ikusten duena alegatuz.

Eskubide hau erabiltzen badu, bere idatzia espedientearen instruktoreari aurkeztu beharko dio. Ez badago errekurtsorik, ebazpen proposamena irmoa izango da eta zigorra definitiboa izango da efektu guztietara.

Bere kasuan, formulatutako alegazioak entzun ondoren, Diziplina Batzordeak erabaki egingo du betiko, hurrengo bost egunetan, alegazioak entregatzen diren hurrengo egunetik.

5.- Instrukzio ekintzak, alegazioak eta probak, bide elektronikoen bidez burutu ahal izango dira.

6.- Ebazpena motibatua izango da, eta interesatuek planteatutako gai guztiak sartuko dira, eta baita prozedimendutik eratorritako beste batzuk ere. Hala ere, bakarrik instrukzio fasean zehatutako gertaerak onartuko dira.

7.- Ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie eta adieraziko zaie ere, bere kasuan, honen kontra jar daitezkeen errekursoak.

8.- Zigor definitiboa, Fakultateko Dekanoaren aurrean errekurritu daiteke, hiru eguneko epean, jakinarazpenetik kontatuta, idatzi motibatu baten bidez. Adierazitako epean ez bada errekurtsorik aurkezten, zigorra definitiboa izango da.

Dekanoak, bost eguneko epea dauka errekurtsoa ebazteko. Epe hau pasatu ondoren, errekurtsok ebatsi gabe jarraituko balute, desestimatutzat hartuko dira isiltasunagatik, eta aurreko ebazpena berretsiko da.

Adierazitako errekurtsoen ebazpenak agortu egiten du bide akademikoa eta beraz, zigortuak bakarrik dagozkion errekurtsok judizialak jarri ahal izango ditu.

9.- Diziplina Batzordearen ebazpena, espedientea interesatuei jakinarazten zaien hurrengo egunetik edukiko du efektua, eta bere kasuan, unibertsitate komunitateari.

10.- Zigorren kunplimendua, inposatutako ebazpenak irmoak direnean hasiko da; kautela neurriak ere egon daitezke.

11.- Ebazpena irmo denean, hau zigortzailea bada, betearazpen terminoak zigortuari eta dagokion fakultateko organoei jakinaraziko zaizkie, eta baita Idazkaritza Akademikoari ere, bere inskripziorako dagokion erregistroan.

12.- Ikasle espedientatuaren ezetza, bihurrikeria edo erresistentzia, deklarazioa prestatzeko instrukturearen edota Diziplina Batzordearen aurrean, diziplina espedientearen irekiera ekarri zuen gertaeren gainean, edo jasotako komunikazioaren ukapena, ez du galaraziko inola ere, espedientearen tramitazioa. Ez dute espedientearen tramitazio osoa oztopatuko ikasleak egindako ekintzak, berau atzeratzeko, geratzeko, indargabetzeko edo eragozteko.

21.artikulua. Epeen zenbaketa

Arautegi honen epe guztiak, astegunetan konputatuko dira. Ez dira konputatuko jai egunak, larunbatak eta igandeak eta ezta oporrak err.

22.artikulua. Epeen luzapena

Organo eskudunak, aurreko artikuluetan adierazitako epeak, instrukziorako, probarako eta ebazpenerako, luzatu ahal izango ditu ebazpenerako, hauek nahikoak ez direnean aipatutako tramiteak era egokian burutzeko.

IV. KAPITULUA. PROZEDURA LABURRA

23.artikulua. Prozedura laburtua

Prozedura laburtua tramitatu ahalko da, ikasleak, 8n, p eta 9k, m artikuluetan aurreikusten diren faltak eginez gero.

Irakasleak, dagokion koordinatzaileari helaraziko dion txosten bat idatziko du.

Dagokion koordinatzaileak, txosten bat emango dio Batzordeko Lehendakariari, zigorra betearazteko. Batzordeko Lehendakariak ikasleari jakinaraziko dio zigorra, ebazpen motibatuaren bidez.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizonezko generoa erabiltzen den hainbat terminotan, emakumezkoa barne dagoela ulertzen da. (Euskaraz ez da gertatzen).

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi hau, Fakultateko Lanbide Heziketako programetan matrikulatuta dauden ikasleentzat ere zuzenduta dago. Administrazioak ezarritako arau propioak ikasketa hauetarako berdin jarraitzen dutelarik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Fakultatean indarrean dauden arautegi guztiak, arautegi hau indarrean sartzen denean, euren edukia egokitu beharko dute Arautegi honekin bat etortzeko.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau, Fakultateko Batzorde Akademikoak onartu du, 2022-2023 ikasturtean indarrean jartzeko.